

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Aurtengo jaietan
Karrikako jai
batzordea sortu
zutela hogeita bost
urteak ospatuko
dituzte

2014ko uztailaren 18, 407 zenbakia IX. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

KARRIKAKO JAIK ASTEBURUAN

Mikel Esnal igerilaria estatu mailako txapelketan arituko da

Andoaindarra Bartzelonan lehiatuko da asteburuan, Euskadikoan gutxieneko marka lortu eta gero.

Zortzi urte zituenean igeriketan hasi eta hogeita birekin estatuko onenekin arituko da andoaindarra. Balentria egin zuen uztailaren hasieran, Euskadiko 4x200 erreleboetako proban, lehen 50 metroetan ezarritako denborarekin estatu mailako aritzeko txartela lortu zuelako. Buruntzaldea IKT klubeko kideak denboraldi oparoa darama, Euskadikoan emaitza onak lortzeaz gain, marka pertsonal berriak lortu zituelako.

Uztailaren 17an Bartzelonara joan behar duzu Espainiako txapelketara. Urduri al zaude?

Mikel Esnal. Gogoz nago eta espero dut lasaitasunarekin hartzea. Normalean oso urduri jartzen naiz, baina dagoeneko hainbeste esperotako gutxieneko marka hori lortu dut. Estatu mailako iritsi naiz eta behin iritsita, ahalik eta gehien disfrutatzea izango da nire helburua. Neronek egindako marka jaisteko aukera badago, saiaturko naiz jaisten, baina disfrutatzerazera joango naiz.

Puntako igerilariekin lehiatuko zara, zer sentitzen du zu ere beraien artean egongo zarela jakinda?



Mikel Esnal igerilaria Allurralde kiroldegiares atarian.

M.E. Espainia mailako onenak egongo dira bertan. Bertatik bertara ikusi eta ahal bada beraien igeriketa modutik ikasiko dut. Ohore bat da beraien artean egon ahal izatea; azken finean, beti pentsatu izan dut beraien alboan egotea gustatuko litzaidakeela. Oraingoan lortu dut. Horrelako aukerak ez dira beti izaten.

Zer da igeriketan gogorrena egiten zaizuna?

M.E. Entrenamendu batzuk oso gogorrak izaten dira, eta gaizki

“Estatu mailako txapelketara iritsi naiz eta behin izango naizela, ahalik eta gehien disfrutatzea izango da nire helburua”

pasatzen da. Baina gogorrena, emaitzen atzetik arrastaka ibiltzea da. Horrenbeste entrenatuta, emaitzak iristen ez badira oso nekagarria da. Emaitzak lortzen ez ditudanean burumakur egoten naiz, zertan ari naizen pentsakor.

“Txapelketarako hiru aste daramatzat goizez eta arratsaldean entrenatzen”

Emaitza horiek lortzeak igeriketara gehiago lotu al zaituzte?

M.E. Bai, emaitzak iristen ari direla ikustean gustura sentitzen zara eta horrek beti erakarri egiten du, gehiagora joan zaitezkeela ikusten duzulako. Geroz eta gehiago lortu, orduan eta gehiago murgiltzen naiz igeriketan.

Estilo ezberdinetan markak lortu dituzu. Zein modalitate duzu gustukoena?

M.E. Gustuen krolean ibiltzen naiz. Eta azkarra izanik, 50 metroko probatan sentitzen naiz erosoan. Tximeletan, bularrean eta bizkarrean ere banabil, baina krola nahiago dut. Pertsona bakoitzak ezberdin hartzen du estilo bakoitza, eta bati erreza egiten zaiona, zaila egiten zaio besteari. Niri, adibidez, zailena egiten zaidana bularrekoa da.

Denbora asko eskaintzen al diozu igeriketari?

M.E. Bai, astean sei aldiz entrenatzen dut, astelehenetik larunbatera. Normalean uretan bi orduz egoten naiz, eta gimnasio-ko lana egin behar denean, beste ordu batez pasatzen dut gimnasioan. Espainiako txapelketarako, ordea, hiru aste daramatzat goizez eta arratsaldean entrenatzen.

[KIROLAK, 7. ORRIALDEA]



Garitano Ahdun Nagusia Urnietan

Ostegun honetan egun osoz Urnietan izango da. Alkatearekin batera agerraldi irekia egingo du 19:00tan, Lekaion.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Aiurri udan internet sarean

Aiurri astekariko lantaldeak oporraldiari ekingo dio las-ter. Abuztuaren amaieran hasiko dira berriro lanean, irailaren hasieran astekaria berriro ere etxez etxe banatzeari ekiteko. Bien bitartean, Aiurriko irakurleok, uda ona izan.

Oporretan izan arren asteotan sortzen diren albisteak eta jaien jarraipena webgunean eta sare sozialetan eskainiko dira.

[WWW.AIURRI.COM]



Uda honetan ere, Aiurri.com gunean edizio jarraitua: Albisteak, azken ordukoak, agenda, argazkiak, bideoak eta auzoetako jaien jarraipena

- **Karrikako jaiak:** Uztailak 18, 19, 20.
- **Etxeberrietako jaiak:** Uztailak 25, 26, 27, 30, 31.
- **Goiburuko jaiak:** Uztailak 31. Abuztuak 1, 2, 3.
- **Buruntzako jaiak:** Abuztuak 9, 15, 16.
- Egitarau guztiak Agendan.



Nahikari Garcia, Europako futbol txapelketan

17 urte azpikoekin Costa Rican jokatu zen munduko txapelketan goleatzaileetako izan eta gero, asteon ekin dio Noruegan Europako 19 urte azpiko txapelketari. Hamaikakoan sartu zuten arren, Irlandaren aurka 1-0 galdu zuten. Ostiral honetan -uztailak 18- bigarren partida jokatu dute suediarren aurka, eta hurrengo astelehenean -uztailak 21- Ingleterren aurka.

Nahikari Garcia denboraldi borobila osatzen ari da. Realarekin debuta egiteaz



Nahikari zutik eta erdian, lehen partida hasi aurretik.

gain, munduko eta Europako txapelketetan jokatzeko aukera izan du.

Dirulaguntzak ikasten ari diren helduentzat

Euskaltegietan edota Hezikuntza Heziketa Ikastetxe publikoan 2013-2014 ikasturtean ikasketak egin dituzten herriko ikasleek dirulaguntzak eskatzeko epea dute, uztailaren 30era arte.


Hiru dira laguntza motak:

- Euskaltegiko matrikularen beka.
- Euskaltegiko ikasleentzako garraio-gastuen laguntza.

- HHI zentroetako ikasleentzako garraio-gastuen laguntza.

Dirulaguntzen ezaugarrien informazioa urnieta.org webgunean eta Bertan herritarren arreta bulegoan kontsulta daiteke. Langabetuen kasuan, bizitza laborala aurkeztu behar dute euren egoera egiaztatu ahal izateko.

Jaiak iragartzeko kartela aurkezteko epea istear da



Uztailaren 22a baino lehen aurkeztu behar dira lanak, Bertan bulegoan. Aurtengo Sanmielak iragartzeko kartel lehiaketa irabazten duenak sari polita eskuratuko du, 450 eurokoa. Karteletan ezinbestekoa da "Urnietan, 2014ko Sanmielak" esaldia txertatzea.

Jatorrizko lanek 32 cm-ko zabalera x 48 cm-ko altuera izango dute; ezinbestekoa da paperean eta kartoilumazko euskarri gainean aurkeztea, kolore orotan eta edozein modalitate artistikotatik. Lana formatu digitaletan

ere aurkeztu beharko da, egindako formatu berean, 300ppp-ko erresoluzioan eta CMYK erako koloretan.

Lanak aurkezteko garaian egilearen izena kartazal itxian sartu behar da, egilearen izena, helbidea eta telefonoa aditzera emanez.

Lehiaketara aurkeztutako kartelekin erakusketa bat egingo dute Lekaion.

Azken orduko aldaketarik ez badago, irabazlearen izena irailaren 15ean jakinaraziko dute.

Informazioa: 943 008 000
urnietakoudala@urnieta.org

Ostegun honetan agerraldi irekia Lekaion, 19:00etan

Ahaldun Nagusia Urnietan

Martin Garitano Gipuzkoako Ahaldun Nagusiak Urnietan egun osoko bisitaldia egingo du, hainbat gune bisitatu eta herriko eragileekin elkarrizketa-zeko baliatuko duena. Hona, egun osoko plana:

- 11:00 Udaletxean bilera udal korporazioarekin eta langileekin.
- 12:00 Prentsaurrekoa Saroben.
- 13:00 Kiroldegira bisitaldia.



- 14:00 Bazkaria Zaldunegin.
- 16:30 Denda Berrira bisitaldia.
- 17:10 Salesiarren inguruko errotondara bisitaldia.
- 17:30 Xoxoka auzoan bilera.
- 18:10 Bizikidetza plana lantzen ari diren taldeko ordezkariarekin topaketa.
- 19:00 Herri bilera Lekaion, euskaratik gaztelaniarako itzulpen zerbitzuarekin. Herritarrek diputatuari eta alkateari galderak egingo aukera izango dute.

San Juan jaietan emakume batek eraso jasan zuen geltokian

Sexu erasoaren aurka

Egun hauetan aditzera eman dutenez, San Juan egunez Urnietako tren geltokian sexu eraso jasan zuen herriko neska batek. Eta hura gaitzesteko Udalak elkarretaratzea egin zuen uztailaren 11n, San Juan plazan. Gertaera honen harira Urnietako Udalak adierazpen instituzionala egin zuen, eraso salatuz. Sei puntutan laburbiltzen da adierazpena:

1. "Urnietako Udalak eraso jasan duen neska, bere familiarri eta lagunei babes guztia agertzen die. Udala bidelagun izango dute aurrerantzean ematen dituzten urratsetan".
2. "Gertatutakoaren aurrean, Urnietako Udalak, bere salaketa irmoena azaldu nahi du. Larria, mingarria eta onartezina da gure gizartean horrelakorik gertatzea. Ez da salaketa hutsean geratu behar eta indar handiagoz gure esku dagoena egingo dugu horrelakorik berriro gerta ez dadin".
3. "Udalak gertatutakoa guztiz argitzea eta eratorri daitezkeen ardurak zehaztea eskatzen du".
4. "Era berean, denek eskatu nahi die, gaiak eskatzen duen ardurarekin jokatzeko. Erasotutak eta familiak merezi eta beharrezkoak duten intimitatea garantizatuz eta alde batera utziz arinkeriak eta zurrumurruek".
5. "Udalak eraso hau salatzen



Bilkura egin zuten Urnietan.

herritar zein herriko eragileei parte hartzeko deia luzatzen die. Ostiralean, hilak 11, arratsaldeko 19:30tan kontzentrazioa egingo da Urnietako San Juan plazan, eraso hori eta genero indarkeria salatuzko".

6. "Udalak, konpromiso irmoa azaltzen du, horrelakorik berriro errepika ez dadin, bere esku dauden eta hartu beharreko neurri guztiak hartzeko".

Urnietako Gaztelekuaren eskutik, datorren astean zehar

Gipuzkoa argazkietan

Irteerak kamara eskuan hartuta, Gaztelekuaren esku. Izenematea zabalik dago. Uztailak 21, astelehena: Hondarribira irteera. Uztailak 22, asteartea: Oriora irteera. Uztailak 23, asteazkena: Zumaiara irteera. Uztailak 24, osteguna: Argazkiak ikusteko sari-banaketa ekitaldia.



Banaiz Bagara elkartearen ekimena uda honetarako

Herrian barrena oinez, euskaraz hitz eginez

Euskara praktikatzeko ibilaldiak antolatu ditu Banaiz Bagara elkarteak Andoain eta Urnietan. Udan ere hizkuntza praktikatu ahal izateko ordu-bete inguruko ibilaldiak egingo dituzte, eta urtean zehar ikasitakoari jarraipena emateaz gain, jende berria ezagutzeko eta herria beste modu batera ikusteko aukera izango dute parte hartzen duten herritarrek.

Topaleku batetik abiatuta, norabide ezberdineko ibilaldiak egingo dituzte 5-10 lagun inguruko taldetan. Hala ere, taldeek ez dute mugarik izango, ibilaldian zehar talde txikiak sortzen direlako. Banaiz Bagara elkarteak Petra Elser irakasleak adierazi duenez, eskola eredutik kanpo egoteak beste sentsazio bat ematen du eta hizkuntza komunikazio tresna gisa ulertzen da: "Ibilaldiek jendea hitz egitera bultzatzen dute. Ahoz eta entzumez ikastea oso bide ona eta balagarria da".

Abuztuaren 17ra bitartean, Andoain Jubilatuen Egokian elkartuko dira ostiraletan, 15:30ean, eta Urnietan, berriz, Lekaio Kultur Etxean bilduko dira astean bitan; astelehenean 09:15ean eta ostegunetan 19:30ean. Ibilaldi hauetan parte hartzeko ez dago izena



"Denak izango dira ongi etorriak. Kontua pertsona mota ezberdinak nahastea da: gazteak, zaharragoak, emakumeak, gizonezkoak, atzeritarrak, euskaldunak..."



Petra Elser.

eman beharrik eta abiapuntura agertzea nahikoa izango da.

Petrak adierazi duenez, parte hartzea doakoa eta irekia

da: "Edonok parte hartu dezake egitasmoan eta gonbidatuta daude euskaraz hitz batzuk soilik egin ditzaketenak, maila hobea dutenak, euskaldun zaharrak, atzeritarrak eta baita hitz batzuk elkarbanatu nahi dituzten euskaldunak ere. Denak izango dira ongi etorriak. Kontua pertsona mota ezberdinak nahastea da: gazteak, zaharragoak, emakumeak, gizonezkoak, atzeritarrak, euskaldunak...". Beraz, euskaraz hitz egiteko borondatea duen edonork hartu dezake parte.

Uztailaren 26an, goizean hasi eta gauerdia arteko ospakizunak

Gaztetxearen aldeko eguna

Azken hilabeteetan Urnietan gaztetxearen aldeko mugimendua gorpuztuz doala dirudi. Ekainaren hasieran gazte talde batek gutun publikoa argitaratu zuen (ikus, Aiurri 403. zenbakia) leku baten premia adieraziz: "Argia da azken urteotan sortu den herri mugimendua, eta herriak herriarentzat lan egiteko duen gogo handitzen ari da. Norbanakoen eta elkarten borondatezko lanetik herriko festak indartu eta beste hainbat ekintza sortu dira.

Gaur ohar hau sinatzen dugunok indar horiek guztiak bilduko dituen leku fisiko baten beharra azaldu nahi dugu; orain artekoak biltzeaz harago, ekimen berrien sorleku izan daitekeena. Guztiok etxean be-



zala sentiaraziko gaituen gune bat".

Gerora, ekainaren 27rako asanblada eta kalejira antolatu zituzten. Hilabete beranduago, "Gaztetxearen aldeko eguna" izeneko ospakizuna iragarri dute. San Juan plazan izango da, egun osoko egitaraua izango duelarik.

GAZTETXEAREN ALDEKO EGUNA SAN JUAN PLAZA

Uztailak 26, larunbata

11:00 Hitzaldia, haur jolasak, tailerrak eta logoaren aurkezpena.

12:00 Paella lehiaketa. Tiketak eskuragarri daude Xauxar eta Amailur tabernetan.

14:30 Paellen aurkezpena eta bazkaria. Edaria gazte asanbladaren esku doala iragarri dute. Ondoren logo irabazlea zein den adieraziko dute. Arratsaldea mus txapelketarekin osatuko dute.

19:30 ManiFESTazioa.
21:00 Ogitarateko salmenta.
22:30 Kontzertuak.



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Bertsoa eta euskaldun izatea

Neure bizitzan zehar burutazio asko egin det nere kasa. Batzuetan asmatu eta besteetan hanka sartuko nuen.

Esan ohi det isilik egoten erakutsi zigutela, hau da, gordetzen, aguantatzen, memorian ondo gordetzen baina ez konpontzen mintzaldi baten bidez, beste herrietakoak baino zapalduagoak izan gera gai honetan. Pozaldiak gorde, minaldiak gorde, gure sentimenduak lurperatu, ez nabarmendu.

Demagun estuasun batean eskatzen diodala harakinari txuleta on bat emateko, saltzeko, eta erdipurdikoa ematen didala; nik ez det eskandalurik sortuko, baina zin egingo det ez ni ezta ere nire odolekorik ez dala sartuko harategi horretan. Hori dena ahotsik altxatu gabe, isilik. Gu gera gure gurasoenkin, gure maixuekin, handia txikiarekin, goikoa behekoekin, nagusia morroiarekin, zuria beltzarekin izandako gorabehera guztien gordailuak, denak irakiten, barruan egosten ari diran potajeak. Inon inori esan gabek. Demagun, bertsolarietara gaia jartzen dietela: maisua eta ikaslea, aita eta semea, eta neri egin zizkidaten injustizia denak esaten, aireratzten hasten direla bertsoan, neri esatea gustatuko litzaizkidakeenak "katarsi kolektibo" batean bezala.

Zorutzen egongo naiz horietara entzuten, urrutiko intxaurrekin ez baitira ari, baizik nire intxaurretaz, nire

Esan ohi det isilik egoten erakutsi zigutela, hau da, gordetzen, aguantatzen, memorian ondo gordetzen baina ez konpontzen mintzaldi baten bidez

sentimenduen berri ematen ari dira. Eta bat egiten det ikasleak maixua menderatzean. Bertso hobea egin liteke baina neri gaia interesatzen zait une horretan. Bertsolarietara atera arazten dizkigute barruko zauriak. Hori gauza mingarrietan. Guk sentimenduak baditugu baina gordeta; ez gabiltza kanpaiak joaz.

Gertaera pozgarrietan berdin. Eztei batera ez gera joaten goseak gaudelako, ezkongaietara poztan garelako baizik. Beste herrietako jendeak buila haundiak ateratzen dituzte; guk gutxiago, ez sentimendurik ez dagokelako, gai horri giltza jarri diogulako baizik. Demagun bertsolariak ekartzen ditugula guri bizitzea eta esatea gustatuko litzaizgukenean esateko eta gu txoratzen egoten gera haiei entzuten Joxek Maritxu maite duela egun sentian loreak ihintza bezala, gure sentimenduen adierazgarri direlako. Ez bertsoa ez poesia eder direlako bakarrik baizik gure behar bati erantzuten diotelako dira ederrak.

Bertsolaririk ezean abestiak ditugu egoera guztiatarako gordeta, beste hoberik ezean abesten ditugunak: bai herrimina piztutzeko, gure natura miresteko, alaitasuna, urtebetetzean zoriontzeko, baita ere gure minak eta etsipenak ateratzeko. Iparragirre eta beste asko ditugu horretarako. Lehen gehiago abesten genuen eta gaur Iparraldean abesten dute maiz eta egoki. Horiek denak dira zeharkako bideak gure sentimenduak azaltzeko, baina egokiena litzaiteke hitzez hitz aipatzea, gure barrena dagoen bezala nabarmentzea.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Uda gozoa igarotzeko aukera Gazte Lokalean

Uda honetan Andoaingo Gaztelekuak "Uda gaztea" egitasmoarekin tailerrak eta irteerak antolatu ditu.

Zein jarduera antolatu dituzue aurtengorako?

Urtero bezala jarduera mota ezberdinak antolatzea gogoko dugu, hartara gazte guztien gogoko jarduerak egin ditugula ziurtatzeko. Tailerretan normalean gazte askok parte hartzen dute. Urtean zehar ere askotan antolatu ditugu. Uda honetan urtean zehar arrakasta handia izan dutenak errepikatzea pentsatu dugu. Postre tailerrak, esaterako, beti izaten du arrakasta handia. Aurten "cup cake"ak egin ditugu eta gazteak oso gustora aritu ziren horiek prestatzen eta ondoren dastatzen. Txapa tailerra edota goma eva tailerrak ere gogoko dituzte.

Udako ekintza berezi bezala, piraguan ibiltzea eta kirol abentura parkera irteera antolatu ditugu. Lehenengoa ezin izan dugu egin jarritako egunean, uda oso kaskarra izaten ari delako. Kirol abentura parkera asteburu honetan goaz.



Postre tailerrak gazteen artean arrakasta handia izaten du.

Nork hartu dezake parte zuek antolatutako hitzorduetan?

Ekintza guzti hauek 12-18 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude. Gazteak errazago animatzen dira, helduagoi kosta egiten zaie. Beraien kabuz iritelen hasten dira adin tartetara.

Zein mezu helarazi nahiko zenioke haur eta gaztetxoei?

Antolatutako ekintzetan parte hartzeri animatu daitezela, primeran pasako dutela eta beste ideiarekin bat badute gurekin harremanetan jartzeko, lokaletik pasaz edo sare sozialen bidez harremanetan jarri.

Debako ispiluen etxean



Santa Krutz elkarteko kideen eskutik, aurreko astean herritar talde batek Deban

eta Ondarroan egunpasa egin zuen. Irudian, bidaia-riak Debako Valmar etxean.

Udal liburutegia udan

Uztaila, astelehenetan:
10:00-13:00 / 16:30-20:30.
Asteartetik ostiralera:
10:00-14:00.
Abuztua, asteartetik ostiralera:
10:00-14:00.

Fonoteka-bideoteka:
Abuztuaren itxita. CD edo bideoak liburutegian eskatu behar dira eta erabilgarri baldin badaude egun batetik bestera lagako dituzte.

Egokitzapen lanak herrian

Mugikortasun planaren baita Udalak hainbat lan eraman ditu aurrera herriguneko hainbat tokietan. Espaloi ugari berritu dituzte eta lehen egokitu gabe zeuden ezinduentzako guneak prestatu dituzte.

Lanak Karrika auzoan hasi zituzten eta jarraipena izan dute Zumea kalean, Kaleberrian, eta Kaletxikin. Hurrengo egunetan hobekuntza lanak egingo dituzte Ama Kandida etorbidean eta Bazkardon.

Egitasmo ugari biltzen dituen plangintza aurkeztu dute

Burdina lanez gainezka



Argazkian udalerrietako alkateak agertzen dira, Ana Carrere (Andoain), Aritz Mujika (Berastegi), Eneko Maiotz (Orexa), Iñigo Etxebeste (Elduain) eta Pili Legarra (Asteasu). Eta horiekin, Burdinako kideak zein kolaboratzaileak: Patxi Aznar, Xabier Arruti, Joxe Ramon Berrondo, Xabier Alberdi, Txomin Ugalde, Alfredo Moraza eta Manu Izagirre.

Urtean zehar abian jarri dituen edo jartzeokoak dituen egitasmoak aurkeztu zituen Burdina taldeak Goiburuko plazan, joan de ostegunean. Auzolanaren filosofiari helduz orain hamaika urte hasi zenetik hazten joan da Burdina taldea. Aurten, esaterako, bere egitasmoetan parte hartzeko gero eta bolondres, udalerriri, historialari eta teknikari gehiago bildu ditu.

ARESOKO LEIZEZULOA

Ulizar mendi inguruan bada leize zulo bat eta badira Santa Krutz ermita zaharraren aurrekariak. Zundaketa arkeologikoa egingo dute leize zuloan, eta bestetik, ermitaren inguruan aztanarik geratzen ote den ikusi nahi dute.

ATXULARREKO GOTORLEKUA

Aranzadi elkarteko arkeologo Alfredo Morazak Leizotz bailaran Axular mendi muinoan zer egiteko asmoa duten azaldu zuen: "Andoainek badauzka makina bat altxor ezkutuan, eta

horietako bat da Axular mendia. Hor kokatzen den gotorlekua, 1838an eraiki zenez geroztik, leku estrategiko gisa gutxienez hiru alditan erabili izan da. Hain zuzen, lehen eta hirugarren guda karlistetan eta 1936ko gerran leku defentsiboa izan zen, bai karlistentzat eta baita errepublikarrentzat. Gure helburua leku horretan dauden aztarnak topatzea eta azalratzea izango da".

LEITZARANGO MEATZEAK

Txomin Ugalde Felix Ugarte espeleologi taldeko kidea da. Leitzaran bailarako meatzeen indusketa lanak zuzenduko ditu: "Aurreko urteetan Berineseko meatze konplexua aztertzen ibili gara. Meatze horiek, Karbono 14aren frogari esker, behe erdi aro garaikoak direla jakin ahal izan dugu, hots, 1400 urte ingurukoak. Garrantzi handiko deskubrimendua izan da hori, izan ere ordura arte Gipuzkoan uste izan zen soilik aurrehistoriako eta garai modernoko meatzeak zeudela. Meagintzari lotutako

Gipuzkoako historian falta zen katebegia, erdi arokoa alegia, topatu ahal izan da era horretan. Aurten, Barrenolako burdinazko meatzeak aztertzeari ekingo diogu. Urte askotako lana izango da, meatze multzo konplexu baten aurrean baikauden".

EGITASMOEZ GAINEZKA

Burdina taldeak beste zenbait egitasmo burutzeko asmoa du. Horien artean Jaione Iriondo arkeologoak zuzenduko dituenak: Andoainean Asindegiko lixibatokia eta Baltzuketako Txikiko karobiaren berreskurapena, erromatar aztarnen indusketa (Molusku hondakinaren pilaketa) eta aurreko urteetan berreskuratutako zenbait ondareen mantenimendua eta haien ezagutzaren hedapena.

Lanak ez dira horretara mugatuko. Leitzaran bailaran Mustarreko burdinola berreskuratuko dute, Elduainen Saleseko karobia txukundu. Orexan, Basabeko zentral hidroelektrikoan elektrizitate turbina, errota eta zerrategia txukunduko dituzte. Eta azkenik, Asteasun, berreskuratu berri den Urnategiko errota inguruan sasiak garbitu eta partak sendotzeari ekingo diote.

ANDOAINGO UDALAREN ESKER ONA

Ana Carrere alkateak Burdina taldeak hamaika urtetan egindakoa goraipatu zuen, "auzolana euskal kulturaren erabat errotua dagoen filosofia da, eta horri esker, hamaika ondare historiko berreskuratu ahal izan ditu. Alde horretatik, udalerrietatik eskertza adierazi behar diogu Burdina taldekoei".



Israel Gazan egiten ari den erasoaldia salatzen hainbat herritar bildu zen Basatero aurrean. Ostiral honetarako hitzordu berria ipini dute, 18:00tan hasita.

KARRIKAKO JAIK ASTEBURU HONETAN

Jai batzordeak hogeita bost urte

Auzoko arazoei konponbidea bilatzeko sortuta zegoen auzo elkarteak jaiak antolatu zituen 1980an. Ismael De La Revilla, Juan Gallego eta Xabier Arruti auzo elkarteko eta jai batzordeko kide izan ziren

hasierako urte haietan, eta Andoainen egundoko oihartzuna lortu zuten ekitaldi eta gertakariak oroitu dituzte Aiurri astekariarentzat.

Zergatik jarri ziren abian auzo jaiak Karrikan?

Ismael De La Revilla: Karrikako auzo elkarte auzoak urbanistikoki eta azpiegiturei begira zeuzkan gabezia larriei erantzuteko sortu zen, frankismoa amaitu ostean.

Andoaingo Udalak dantzaldiak auzo askotan antolatu zituen urte batean, eta gurean Akelarre taldea aritu zen. Jai giro polita sortu zen eta orduan geure buruari planteatu genion ea zergatik ez asteburuko jaiak antolatzea. Lehendik ere, haurrentzat batik bat, joko eta marrazketa lehiaketak antolatzen genituen. Horrela, asteburu osoko programa itxurosoa antolatzeko erronka hartu genuen.

Auzo elkarteak auzoko bizitza irauli egin zuela esan daiteke beraz?

I.R. Erabat. Auzoa desastre hutsa baitzen urbanistikoki. Aldarrikapen zerrenda luzea geneukan, eta bakoitzarekin benetako abentura bizitu behar izan genuen. Konkista ugari lortu genituen, baina denak ere borroka luzearen ostean. Bilkurak udaletxe aurrean, 200 laguneko bizikleta martxak, 80 autoz osatutako karabana... Algodonera lantegi zaharreko hondakinak ken zitza-



Juan Gallego, Xabier Arruti Txanka eta Ismael De La Revilla, Karrikako auzo elkarteko eta jai batzordeko kideak hasierako urtetan.

ten izan zen aurreneko lorpena. Ondoren, hoditeria, argizterria, telefono kabina, semaforoa, posta lekua, ludoteka..., etorri ziren. Elkarte gastronomikoa ere ireki genuen, auzotarren bilgune gisa.

Juan Gallego: Elkartean argi geneukan independentea behar zuela izan, ezin genuela onartu, esaterako, bere jarduna baldintzatuko zuen dirulaguntza ofizialik. Soilik jaietarako jasotzen genuen laguntza. Elkarteko kideak astero biltzen ginen, eta errifak eta denetarikoko ekintzak antolatzen genituen autofinantzatzeke, auzotarrak mugitu eta aldarrikapen-

nak kaleratzeko, aisialdiko ekintzak antolatzeko... Zer ez ote genuen egin! Euskaltegia, ludoteka, elkarte gastronomikoa... Ludotekarekin, esaterako, konta dezakegu pasadizo esanguratsua: bi inaugurazio ekitaldi egin ziren, bata ofiziala Udalaren eskutik, eta bestea auzotarrak burututakoa.

Nortasun bereziko izan da betidanik, Karrikako jendea...

I.R. Izaera bereziko da, bai. Jatorriz, langilea. Egia da denetik egon dela beti, baita indarrak soilik kritika suntsitzailerak egiteko bideratzen dituen eta gero ekarpenik egiten ez

duena. Oro har, hala ere, jendea beti egon da karrikatarra izateaz harro, eta auzoaren alde lan egiteko prest agertu izan da eskatu zaionean.

Asko aldatu da jaiak bizitzeko era, zuen hasierako garaietatik...

J.G.: Hamabi lagun biltzen ginen mahai inguruan jaiak antolatzeko, ekitaldiak antolatzeko, iragarleak lortzeko... Tartean, bidean joan zaizkigun Batista Otxandorena, Lorenzo Hurtado, Juan Mujika, Manolo Seara eta beste zenbait. Auzoaren aldeko motibazioa partekatzen genuen, eta erraz moldatzen ginen elkarrekin. Inoiz ez genuen xextra latzik eduki geure artean. Ardurak utzi egin genituen, neke pertsonala sentitu genuelako izan zen.

Azken urtetan, hiru lagun baizik ez dira animatzen jaiak antolatzeko, eta atsekabea eragiten digu horrek. Nahiko meritua daukate ez direlako nazkatzen; arrazoiak soberan dauzkate, maiz kritika txarrak besterik ez baitituzte jasotzen.

I.R.: Bistan da aurreneko urte haietan auzotarrak gehiago inplikatzeko zirela auzoko dinamikan. Orduan, %90ak modu batera edo bestera hartzen zuen parte festetan. Garaiak aldatu egin dira guztiontzat, ohiturak, aisialdia pasatzeko joerak, go-

goak... Dena nahasi egin da, eta badirudi tabernetan bakarrik pasa daitekeela ondo.

Santurik gabeko jai bakarrak dira zuenak, Andoainen...

J.G.: Kontua da iraganean, abuztuan joaten zela oporretara mundu guztia, eta horrengatik, uztailean kokatu nahi izan genituen jaiak; Andoainen, hilabete hartan, apenas antolatzen zen ekitaldirik.

I.R. Jai ateo bakarrak izango dira Andoainen gureak agian; baina hori bai, santu batek presiditzen ditu jaiak. Atzean, bere historiotoxa baitauka; behin, jaietan, euria goian behean hasi zuen. Atertzen ez eta, hantxe geunden atsekabetuta guztiok elkarteko egoitzan. Halako batean, auzotar batek figura hori ekarri zuen etxetik. "Kalean zehar pasiatzera aterako dugu, erreguteak egiteko". Bizpahiru animatu ziren, eta hor non atertu zuen agudo! Ez dakigu zein izen duen panpin horrek, ezta benetan zori ona ematen duen ala ez, baina harrezkerotik txoznan jartzen da. Errotuta dago usadio hori.

Zein dituzue ekitaldirik gogokoena?

J.G.: Pena punttu batez esango dut, baina play back-a aipatuko nuke. Hastapenetan, hogetik gora koadrila animatzen ginen, gazteak zein helduak, nork bere numerotoxa taulartzeko. Umorea eta parodiarako gogoia erakusteaz gain, lehia bizi sortzen zen auzotarron artean. Gainbehera joan da, zoritxarrez.

Ekitaldirik gogokoena? Nik umeentzat antolatzen diren ekitaldiak aipatuko nituzke.

I.R. Umeei begira antolatzen den edozer azpimarratuko nuke ere. Bestelakoan, aparteko ekitalditxoak aipatzearen, "Gai-xoa ni" kantatzearen ekintza gogoratuko nuke. Jai amaierako une kuttuna benetan. Gauza polit askoren antzera parranda giroan sortu zen, bat-batean. Igande gaua zen, eta hantxe geunden triste-triste jai batzordekoak, garagardoak eskuetan. Halako batean, Txanka, metxeroa piztu eta kalera irten zen. Han joan ginen denak atzetik.

GOBERNU TALDEAREN ETA OPOSIZIOEN ARTEKO IKA-MIKA BERRIA

Animalien ordenantza berria, bertan behera

Animalien eta bereziki zakurren ordenantza berritzeko asmoa atzera bota du oposizioak, Udal gobernu taldeak landutako araudi berriari aurkako botoa emanez. Bilduk oposizioa kideen jarrera salatzeke oharra argitaratu du: "Legegintzaldi hasieratik ematen den errealitate bat da. Dirudienez, hori da

PSE-EEK, EAJ-PNVk eta PPK legegintzaldi amaierara arte izango duten estrategia. Beraien helburu bakarra Bilduk erabakiak hartzeko eta kudeatzeko gaitasun eza duela erakustea da. Baina egoera honen benetako kalteak andoaindar guztiak dira".

Egungo ordenantza, Animaliak Edukitzeko eta Babesteko Udal-ordenantza arautzailea izenekoa, 1997koa da. Udal gobernu taldeak araudia berritzea proposatu du. Herrikideen artean interesak erabat ezberdinak dira. Zakurren jabeek zakurrak aske uzteko tokiak egokitzea eta ordutegiak zehaztea nahi dute. Eta, kontrara, era-soak saihesteko zakurrak lotuta joan behar dutenen iritzia askorena da.

Udalak ordenantza berritzeko saioa egin du, besteak beste, Udaltzain-

goarekin eta Zerbitzuak lansailekin elkarlanean: "Batetik eta bestetik iristen diren kekek kontuan hartuta, Udal gobernuak elkarbizitzaren printzipio-etara egokitzen den proposamen bat landu du. Proposamena herria hiru zonaldeetan banatzen datza: zonalde gorria, non txakurrek ezingo lukete inoiz aske ibili; zonalde laranja, non txakurrak aske ibiltzeko ordutegi mugatua izango luketen; eta zonalde berdea, non txakurrak 24 ordutan aske ibili ahal izango luketen".

Bilduri ulergaitza egiten zaio oposizioaren jokabidea, "ez dugu ulertzen herritarren kekek egonda, oposizioa zergatik tematzen den ezezkoarekin". EAJ-PNV alderdiak bideo bidez erantzuna eman dio. Marijose Izagirrerren hitzetan, "egun dagoen araudia bete

dezatela, txakurrak lotuta joan daitezela eta txakurren kakak jaso ditzatela. Txakurren eta bere jabeen eskubideak bermatu behar direla? Ados. Baina beste guztion eskubideak ere zaindu egin behar dira".

Gobernu taldeak, ordea, egungo ordenantza berri nahi du egungo guztiz irreal dela iritzita, "ordenantza hori ez da inoiz aplikatu eta ez da inoiz osotasunean aplikatzen iritsiko, Udalak ez dituelako inoiz horretarako nahiko baliabide izan. Egundak dagoen ordenantza betetzen dela ziurtatzeko kale bakoitzean zaindari bat jartzea suposatuko luke, alegia, ez hankarik ez bururik ez duen aukera bat da hori".

Aldaketak txertatu nahi dituzten zakurren jabeek, beraz, aukera berriaren zain egon beharko dute.



KIROL ALBISTEAK

3x3 basket txapelketa



Uztailaren 24ra bitarte partidak jokatu dira Andoaino Gaztetxearen kanpoaldean. Giro polita sortzen da bertan.

EUSKALDUNAKOAK BIKAIN ARITU DIRA DONOSTI CUP TXAPELKETAN



Amaia Agirre, Alaitz Mikelarena, Olatz Igerategi, Leila Txueka, Nagore Huizi, Mara Lasa, Maider Arbaolaza, Ane Lazkano, Cristina Marquez, Behean Chenoa Gabilondo, Idoia Urruzuno, Maria Corral, Leire Mosquero, Ane Lasarte, Maite Urruzuno, Irati Zabala eta Ainhoa Manterola.

Infantil mailako Euskalduna taldeak erakustaldi ederra eman du Donosti Cup txapelketan. Final aurrekoa jokatu zuten

Amara Berriren aurka eta bina berdindu ondoren, penaltietan galdu egin zuten partida. Amaia Agirre eta Cristi-

na Marquez entrenatzaileen aginduetara, nesken mailako futbolak etorkizun oparoa duela erakutsi zuten.

Izaskun Olasagasti eskubaloio jokalaria

Izaskun Olasagasti andoaindarrak Leizaran eskubaloio jokalaria da, eta kadete mailako Espainiako selekzioarekin hautatu du. Finlandiara joateko da datorren astean.

Finlandiara zoaz. Nola izan da hautaketa prozesua?

Izaskun Olasagasti. Gipuzkoa eta Euskadiko selekzioarekin lehendik ibilia naiz. Orain aste batzuk Burgosen kontzentrazio batean parte hartzeko deialdia jaso nuen. 28 jokalarik bildu gintuzten, eta horietatik 16 Finlandian sei eguneko egonaldia egiteko hautatu gintuzten. Euskal Herritik bi jokalarik besterik ez goaz, nafar bat eta biok.

Finlandiara lagunartekoa jokatzen goaz. Sei egunetan, hango selekzioaren aurka jokatuko dugu. Goizetan entrenatu eta arratsaldetan partida. Hurrengo denboraldiari begira, maila ofizialagoan, Europako txapelketako kanporaketetan parte hartzeko prestaketaren baitan antolatuta dute.

Pozgarria izango da onenen artean hautatu izana.

I.O.: Bai, jakina. Burgosen sei pibote ginen, eta horietatik bi goaz Finlandiara! Espainian izen handia duten klubetako jokalariek zeuden tartean; batzuk, gainera, urte osoa errendimendu altuko zentruetan igaro dutenak. Nire kasua berezia izan daiteke beharbada, Leizaran bezalako talde apal bateko kidea bainaiz.

Azalduko al zenituzke zein diren zure ezaugarriak?

I.O.: 16 urte ditut, eta 1,81 mko altuera. Indartsua naiz, eta dezenteko tiratzailea ere bainaiz... Altuera handiko neska izanik, koordinazio ona daukadan esango nuke, kantxan nahiko bizkor mugitzen naiz.

Jokalaria gisa, pibote eta hegaleko postuetan jokatzen dut Leizaranen; Espainiako selekzioan, berriz, pibote gisa jarri naute. Ez dut gol ugari sartzen, baina postu horrek ez du luzitzeko gehiegi ematen.

Zer funtzio betetzen du pibote gisa?



Izaskun Olasagasti gaztea.

I.O. Ardura handiko postua da baina ez da oso ikusgarria izaten, egia esan. Taldearen alde lan egitea egokitzen zaio. Hutsuneak sortu behar dira aurkarien defentsan; taldearen defentsan, ostera, base bezala jartzen zara, kantxaren erdialdean.

Hemen Andoainen, zer moduzkoa izan da denboraldia?

I.O. Kadete mailan, lehian ibili gara azken unera arte; hiru igotzen ziren euskal ligara eta lugarren geratu gara. Jubeniletan hasiko gara hurrengo denboraldian, eta uste dut Euskal Ligarako txartela lortzeko borrokan aritzea egokituko zai-gula berriro.

Zure ahizpa zaharrena, Kattalin, urrun iritsi zen eskubaloian. Aholkurik ematen al dizu?

I.O. Une zailenetan laguntzen dit batez ere. Ulertzen duelako zer sentitzen den halakoetan, eta animoak ematen dizkit.

Norainoko amets eta ilusioak dituzu eskubaloien munduan?

I.O.: Eskubaloia gogoko dut, baina ez da nire bizitza erabat betetzen duen jardura. Burgosen, esaterako, konturatu nintzen askok besterik ez zeukatela buruan; kezkatuta bizi ziren hurrengo entrenamendu edo partidarekin.

Alde horretatik, pertsonalki, burua gehiegi estutu gabe bizi dut eskubaloia. Konturatzen naiz bizitzan badirela beste hainbat gauza, eta mundua ez dela eskubaloiarekin hasi eta amaitzen.



KIROL ALBISTEAK

Esnal estatu mailako txapelketan

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

Nola uztartzen dituzu ikasketak eta igeriketa?


M.E. Ondo moldatzen naiz. Goizean moduluko klaseetara joaten naiz, eguerdi aldera bi ordu inguru ditut lasai egoteko eta ondoren, entrenatzaile bezala aritzen naiz haurrekin. Ordubete beraiekin egon ostean, Lasarten jarraitzen dut nire prestaketa saioekin.

Zergatik eman zenuen haurrak entrenatzeko pausoa?

M.E. Eskaini zidaten eta gogoz hartu nuen, Andoaingo haurrei kirol ibilbide bat eskaintzeko aukera ona zela iruditu zitzaidalako. Andoaingoa izanda, betidanik izan dut herrian bertan kluba izateko ilusioa; beraz, eskaintza ona da Andoaingo haurrei eskaintza hori egitea eta horrek bultzatuta hasi nintzen entrenatzaile lanetan.

Esperientzia berria izan da zuretzat. Zer moduz moldatzen zara uretatik kanpo?

M.E. Bi jarduera ezberdin dira. Uretan zaudenean entrenatzaile izatea zaila ez dela uste duzu, baina kanpora irtendakoan



Argazkia Euskadiko txapelketetan aterata dago, estatu mailakoan aritzeko marka lortu zueneko proban.

konturatzen zara ez dela dirudien bezain erraza; haur bakoitza ezberdina da, modu ezberdinean prestatu behar dira... Bi ikuspuntu ezberdin dira; uretan zaudenean, batzuetan prestatzailea ixilik egotea nahi izaten duzu, eta kanpoan zaudenean, entrenatzailearen papera ez dela erraza ikusten duzu.

Andoainen igeriketa sustatu beharreko kirola dela uste al duzu?

M.E. Bai, Andoainen ez da tra-

dizio handikoa, Tolosan edo Lasarten izan daitekeen bezala. Andoainen beti itzalean egon izan da, eta niri pena handia ematen dit. Sustatu egin beharko litzateke. Horretan saiatzen ari gara, aukera hori eskaintzen eta geroz eta haur gehiago animatzea nahiko genuke. Taldea ezagunagoa egingo litzateke horrela.

Igeriketa ogibide izatea gustatuko al litzazuke?

M.E. Galdera potoloa da, baina ez. Igeriketan ibiltzen naiz eguneroko bizitzaz ahazteko, lasaitzeko eta ihesbide modura. Afizioa ez nuke ofizio bihurtu nahiko. Punta-puntara iristea oso polita izango litzateke, baina hori beste mundu bat da eta gustura nago nagoen bezala. Egiten dudanarekin disfrutatzen dut eta konformatzen naiz.

Zorte on asteburuko txapelketan!

Euskadiko txapelketa

Euskadiko txapelketan Buruntzaldea IKT taldeak emaitza bikainak lortu zituen. Lorpenen zerrenda luzea da: Espainiakoan aritzeko gutxieneko bi marka lortu dituzte eta horrez gain dozena bat domina, marka pertsonalak eta talde barruko marka berriak.

Uztailaren lehen asteburuko saioa bikaina izan zen. Buruntzaldea taldeko sei kide izan ziren eta haiekin batera Mikel Soto infantil mailakoa. Denen artean erreleboka marka berriak ezarri zituzten.

Dudarik gabe, txapelketa osoko albiste ederrena Mikel Esnalen eskutik iritsi zen. Urteak daramatza Mikelek Espainiako txapelketetan parte hartzeko gutxienekoa lortu asmoz eta azkenik, 4x200 metro libreko errelebokako proba baliatuz lortu zuen. Borja Apeztegia klubeko kideak dioenez, "albistea benetan pozgarria berarentzat eta baita gainontzeko taldekide, lagun eta beste taldeetako igerilarientzat ere. Guztiak ere Mikelek egindako esfortzu eta saiakera guztien jakitun direlako. Ondo merezitakoa da".

MIKEL ESNAL EUSKADIKOAN

50 metro librean 24:35

Denbora horrekin zilarra lortu zuen. Baina Espainiakora joateko 24:00tik jaitsi behar zuen.

4x50 metro taldeka 24:34

Bere marka pittin bat hobetu zuen.

4x200 metro librean 23:97

Ostiraleko azken saioan, lehenengo postan marka berria lortzeko asmoz atera zen eta hirugarrenean bai, gogotsu eta indartsu igeri eginez, 24 segundutik jaitea lortu zuen. Espainiako absolutu mailakoan aritzeko txartela lortu zuen. Bere markarik onena da eta, noski, taldeko absolutu mailako marka berria ere bada.

Proba ugari

Aipatutako gain, Mikel Esnalek beste hiru probatan parte hartu zuen: 100 eta 200 metro librean eta 50 metro tximeletan. Azken bi horietan bere marka onenak egin zituen, 200 metrokoan 2:05:77 eta 50 tximeletan 26:48.

Klubaren denboraldia



Klubean baikor daude aurten egindakoarekin, "iazko denboraldian hasi zen lanean, Andoainen. Andoain eta Lasarte-Oriako taldearen elkartzetik sortutako talde honetan, 2012/2013 denboraldian zehar hamar haur izan zituen. Andoainen eta bereziki igerilekuan presentzia lortu ahala, aurtengo denboraldian kopuru hori bikoiztu egin da eta adin tarte eta kategoria desberdinetako haurrak izatea lortu dugu. Helburu bezala, igeriketa pixkanaka Andoainera itzultzea nahi dugu. Bide horretatik jarraituz, hurrengo denboraldirako haur kopuruak ere gora egitea espero dugu. Orain arte, igerilekuan oso espazio mugatua izan dugu baina Andoainen badira igeriketa egin nahi duten haurrak eta igerilekuan espazio eta ordutegi zabalagoak beharko ditugu haur horiek merezi duten arreta eskaintzeko.

Aurtengo denboraldian zehar, benjaminak, alebinak, infantilak eta masterrak izan ditugu.

Benjaminetan 4 neska eta 6 mutil aritu dira, alebinetan 4 neska eta 5 mutil eta infantiletan bi neska eta mutil bat. Denboraldian zehar benjamin eta alebinetik ligako 5 jardunalditan eta hiru saritan hartu dute parte eta infantilek ligako 6 jardunalditan eta bi saritan.

Masterrak orain dela 3 urtetik hona Lasarten entrenatzen dute eta urtero bost bat andoaindar izan dira eurena ere baden igeriketa taldean parte hartzen.

Datorren denboraldiari begira izen-ematea zabalik dago eta nahi duenak parte har dezake. Izen ematea gure web orriaren bidez egin daiteke".

www.buruntzaldeaikt.blogspot.com

Preferente mailako futbola

Preferente mailako futbol taldeak denboraldi berriari begira jarri dira, tartean Euskalduna eta Urnieta. Taldeen zozketa egin dute eta eskualdeko biak lehen taldean arituko dira. Hauexek dira lehen taldeko kideak: Mariño, Dunboa Eguzki, Hondarribia, Pasaia, Euskalduna, Sanpedrotarra, Lengokoak, Urnieta, Hernani, Allerru, Astigarraga, Munibe, Deusto, Trintxerpe, Baskonia eta Orioko. Liga irailaren 21ean hasiko da.

Urnieta KE taldeak bere futbol taldeen aurkezpena irailaren 13an egingo du.

Euskaldunak bere aldetik, entrenatzaile berria izango du: Iñigo Gurrutxaga donostiarra.

Garaipena eta postu onak errepidean

Asteburu ona Andoaingo txirrindulari eskolakoentzat. Zumaia lasterketan Mikel Alonso jubencilak hirugarren postua lortu eta taldekako sailkapenean irabazi zuten.

Arratsaldean Lazkaon, Jokin Alberdik lasterketa irabazi zuen, eta Ander Amonarriz mendiko sailkapena.

Kadeteak, Lazkao:

1. Jokin Alberdi (Andoaingo)
2. Iker Imaz (Inoxcra)
3. Luis Mari Garikano (Limousin)
11. Ander Amonarriz (Andoaingo)

Jubencilak, Zumaia:

1. Unai Orbea (A.Sanz)
 2. Diego Lopez (C.Galdeano)
 3. Mikel Alonso (Andoaingo)
 14. Peio Manterola (Andoaingo)
 18. Gaizka Mayoz (Andoaingo)
 23. Julen Irigoien (Andoaingo)
 32. Adrian Alamo (Andoaingo)
- Taldeka: Andoaingo.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Berezia

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etxe etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne
Olano, Joxeba Lizeaga
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com
www.aiurri.com
Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Gaizka Bernardo (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Uda jaietan

UZTAILAREN 17TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Jaiak

Karrikako jaiak

- **Uztailak 18, ostirala**
19:00 Txupinazoa.
Jaien 25. urteurrena.
19:15 Buruhandiak.
20:00 Sardin jatea.
22:50 Karrika fest: Nuevo Vulcano, Herena eta Giordano Bruno.
- **Uztailak 19, larunbata**
11:00 Burdinaren kalejira Antton eta Eskudero trikitilariekin.
11:30 Haur jolasak.
11:30 Ortzaikako karobia-
ren piztea.
16:30 Puzgarriak.
19:00 Trianaren saioa.
20:30 Danborrada, afaria.
22:30 Danborrada.
23:00 DJ Nemux.
01:00 DJ festa, batxurizopa.
- **Uztailak 20, igandea**
11:30 Meza Sorabillan.
12:30 Patata tortilla lehiaketa eta sagardo dastaketa.
12:45 Toka txapelketa.
17:30 Play-back lehiaketa. Jarraian, bakarriketa saioa.
19:30 Txorizo errea eta La Jodedera zuzenean.

Etxeberrietako jaiak

- **Uztailak 25, ostirala**
17:00 Txupinazoa.
17:30 Haur marrazketa lehiaketa plazan. Jarraian txokolatada.
19:00 Apar festa.
20:00 Patata Tortilla lehiaketa, sari eta guzti.
23:00-04:00 Dj Abraham.
- **Uztailak 26, larunbata**
11:00 Haur parkea.
16:00 Mus partidak Ikatzan.
17:00 Haur jolasak plazan, opari eta guzti.
18:00 Sagardo dastaketa.
23:00-04:00 II.Rock jaialdia: Kraussk, Bloody Brotherhood, Human, Elbereth eta Helldamm.
- **Uztailak 27, igandea**
10:00 VII. Kross herrikoa.

- 11:30 Artzain zakur erakustaldia.
18:00 Herri kirolak plazan.
20:00 Txorizoa eta toka lehiaketa.
- **Uztailak 30, asteazkena**
17:30 Haur antzerkia.
18:00 Txokolatada.
18:30 Patata zuritze lehiaketa.
22:30 Danborrada.
23:00-04:00 Dj Nemux.
- **Uztailaren 31, osteguna**
10:00 Kalejira.
11:00 Zakur trebaketa erakustaldia. Jarraian edertasun lehiaketa.
11:30 Alberto Agirre abesbatza Santa Krutz Elizan.
12:00 Kantujira.
14:00 Auzo bazkaria "Los Rubi" taldearekin. Zozketa, omenaldia.
20:30 Sardina jatea.
22:00 "Alma Navarra".

Goiburuko jaiak

- **Uztailak 31, osteguna**
06:00 Auzoko gazteen eskutik oilasko jokoa.
14:30 Oilasko jokoa, Gazteen bazkaria eta triki-poteoa. Bazkal ondoren jaien hasiera suziri eta kanpaiekin.
- **Abuztuak 1, ostirala**
19:30 Kantujira.
21:00 Auzo afaria frontoian. Ondoren Unai Ormaetxearen monologoa.
00:00 Ingo al deu?
- **Abuztuak 2, larunbata**
10:30 XI. Malkar krossa. Azoka berezia.
17:00 Ardi ile moztailak eta XI. artzain txakur txapelketa. Deapiyua, Unai Mendizabal eta Haritz Mujika bertsolariekin. Bertso-poteoa.
23:30 Ezten Giro.
- **Abuztuak 3, igandea**
12:00 Meza Andoaingo abesbatzarekin. Baltzola anaiak.
12:30 Pilota partidak.

- 14:00 Zaharren bazkaria San Esteban erretegi-
an, Baltzola anaiek girotuta.
- 17:30 Sagardo dastaketa: Sarasola, Irigoien, Zabala, Otsua enea, Gaztañaga, Aburuza, Kalonge, Eguzkitza, Etxeberria, Larrarte. San Estebango etxe-
ko andreen patata tortilak eta Andoaingo talogileak. Sagardo festa alaitzeko eta afal ondoren Baltzola trikitilariak.

Buruntzako jaiak

- **Abuztuak 9, larunbata**
06:00 Oilasko biltzaileak auzoan barrena, Ion Beloki eta Antton Arruti trikitilariekin. Bazkaria Ontzan.
17:00 Mus txapelketa Ontza elkartearen.
- **Abuztuak 15, ostirala**
Jaia Buruntza mendi magalean. Bertan, pintxoak eta edariak eskainiko dira.
10:00 XII. San Roke kros igoera Gaztañaga sagardotegian hasita. Ibilbidea: 6,6 kilometro. Izen ematea ordu bete lehenago irekiko da. Zozketa eta sariak parte hartzaileen artean.
11:30 Toka txapelketa.
12:30 Bertsolariak.
14:00 Auzotarren bazkaria; bertsolariez lagunduta.
- **Abuztuak 16, larunbata**
11:00 Meza auzoko hildakoen alde San Martin aztarnategian. Ondoren trikitilarien, dantzarien eta bertsolarien saioa. Pintxoak eta edariak, jolasak haur eta helduentzat.
20:00 Bertso afaria Gaztañagan. Bertsolariak eta Elustondo anai-
arrebak.

Egitarau guztiak: www.aiurri.com

ZORION AGURRAK

ZORIONAK




Roberto Trutxuelok 41 urte beteko ditu uztailaren 17an. Ondo-ondo ospatu pintxo-poten. Beti bezain guapo eta jator jarraitu. Muxuak, etxeokak.
ANDOAIN

ZORIONAK



Leire Nuñez Larreak, abuztuaren 7an 8 urte beteko ditu. Muxu zaparrada, maite dugunon partetik.
ANDOAIN

ZORIONAK




Eñautek 8 urte bete zituen ekainaren 27an. Haitzartek, bestalde, uztailaren 23an 5 urte beteko ditu. Etxekoak.
URNIETA

ZORIONAK



Araitz Otermin Iturrizteak uztailaren 18an bi urte beteko ditu. Urte askoan eta muxu handi bat. Etxekoak.
ANDOAIN

ZORIONAK



Etxeko bi txikiei zorionak! Jonek 3 urte bete ditu uztailaren 14an eta Maddik 7 egingo ditu abuztuaren 23an. Ondo pasa udara eta muxu handi bat etxekoan partez.
ANDOAIN

ZORION AGURRAK

diseinua@aiurri.com



Aiurri HURRENGO AIURRI IRAILAK 4, OSTEGUNA

SAN ESTEBANGO II. AZOKA BEREZIA
Andoain

Jakiak eta artelanak

Abuztuak 2, larunbata goizean zehar

SEGA Aiurri